


B

BARREN

TOKIKOM

Hondamendiaren gordina Pedro Perezen ahotan

Filipinetan boluntario hilabetez



Etxean, sailkatu zaborra gaika

Eman izena edukiontzi
marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo arreta@elgoibar.net



ELgoibarko Herri Eskola Ikasle bakoitzak bere aukera

2014-2015 aurrematrikulazio epea:
otsailaren 3tik 14ra (biak barne).

Ate ireki eguna:
otsailak 8



Elgoibarko
HERRI ESKOLA



Kalamua, 8 - Tel. 943 74 08 79 - e-mail: 012777aa@hezkuntza.net



Ainhoa Lendinez

Kaixo, Iñi! Udazkene-ko kontuekin nator gaur. Urriaren 27an Goierri Garaia mendiko las-

terketan hartu nuen parte, Urretxu-Zumarragan. Izazpi eta Irimo, eguraldi aparta, giro bikaina eta lasterketa gogorra! Osagai guztiak egun bikaina izateko. Beti zerbaitek huts egin behar, ordea. Ni sekula ez naiz izan muturreko feminista, ezta kolore moreak aldean eramanez hau eta beste aldarrikatzeoa ere, baina han edo hemen, beti gertatzen da ezberdintasunen bat titidunen eta zakildunen artean, eta egia esan gero eta beharrezkoago ikusten dut “berdinismoa” aldarrikatzea. Kontua da lehenengo 10 postuentzat aurreikusi zituztela sariak, hala jaso zuten lasterketaren oinarrietan bederen. Iritsi zen sariak banatzeko unea, eta hara! Lehenengo hamar mutili eta lehenengo lau neskei baino ez zieten eman.

“Saria gorabehera, nolakoa behar du zure ustez podiumak, Iñigo?”

Harri eta zur gelditu ginen podiumeko argazkiari begira, eta lasterketaren ostean hainbat neska idatzi zidaten, gertatutakoa zer iruditzen zitzaidan galdezka eta etsita. Askok uste izango dute agian sari bila jotzen garela lasterketetara, baina nik neuk behintzat, izena ematerakoa gastatutako dirua gutxitan berreskuratu dut saritan, eta inoiz sariren bat jaso badut, espezetan izan da (eta ez da txarra!). Saria gorabehera, nolakoa behar du zure ustez podiumak? Ibilbide eta desnibel berbera, sailkapen berbera? Iritzi-truke aberasgarria izan genuen lagun batzuek lasterketaren ostean, eta askok argudiatzen zuten lasterketetan nesken eta mutilen proportzioak oso ezberdinak izanik, arrazoizkoa zela sarietan ere proportzioari eustea. Ados! Baina orduan, izen-ematea ere, merkeagoa izan beharko luke neskentzat?



Iñigo Lariz

“Berdinismoa”-ren kontu horrekin bat nator ni ere, Ainhoa. Emakumeek kirolean daukazuen parte-hartzea oso nabaria da gaur egun kirol gehienetan, baina ongi diotzun bezala, kirol batzuetan nesken eta mutilen arteko proportzioa oso desberdina da. Azkenaldian mendi lasterketek gure inguruan hartu duten indarra eta sona oso nabaria da, baina kirol gogorra izanda, oraindik ere neska gutxi ausartzen da parte hartzera, nahiz eta beste lasterketa atletikoekin (Behobia-Donostia, Azkoiti-Azpeiti, maratoi erdiak) alde handirik ez dagoen gogortasunari dagokionez. Ez nago ados antolatzaile batzuek daukaten politikarekin, izan ere, mutili neskei baino sari handiagoa ematen diete. Zergatik hau? Neskek baino esfortzu handiagoa egin al dute? Egindako esfortzuari sari bera ematearen aldekoa naiz. Mota honetako sariak banatzen dituztenak gutxiengoak direla esango nuke, bogan dagoen kirol honetan gehiengoak berdintasunaren alde jokutzen du eta. Gainera, ezagutzen dut sarien banaketa berdintsua ez duten probetan parte hartzeari uko egiten dionik ere.

“Egindako esfortzuari sari bera ematearen aldekoa naiz, izan neska edo mutil”

Bestetik, nesken izen-ematea merkeagoa izate hori “berdinismo”-aren aurka doa, baina epe luzera, inbertsioa izan daiteke. Hau da, emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, eta ez horrenbeste egon daitezken ezberdintasunak justifikatzeko.

Bukatzeko, egindako esfortzuari sari bera ematearen alde nago, neska edo mutila izan, nagusi edo gazte. Hamar lehenak saritzea ez dago gaizki, baina betiko podiumaren aldekoa naiz ni, eta saria Mausitxako gazta bada hobel!





ESKERTZA

LUISA EGUREN LARREATEGI

2014ko urtarrilaren 25ean hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
bizitzeko



MENDAKOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Zorionak, eta eskerrik asko

Vacuna taldeko kideei, eta batez ere, Imanol Urañi zorionak eman nahi dizkiet, San Anton egunerako antolatutako ekintzagatik. Os-tiral hartan kalean egon zen giroa demasekoa izan zen, eta horregatik eman nahi dizkizuet eskerrak. Elgoibarko asteburu eta giroa ber-pizteko egin duzuen ahalegina eskertzekoa da, baina jendeak ez du ulertu, eta ez dakit zergatik. Jakin ezazue herriko jende asko zue-kin dagoela, eta animatu nahi zaituztegu ekin-tza gehiago antolatzera. Poliki-poliki Elgoibar-ko gaueko giroa berpiztuko dugu. Mila esker.

I.A.M. ©

Lizundiako Luisi, esker onez

Badira urte batzuk Trinitate jaietan Elgoi-barko baserrietako sagardo dastaketa antola-tzen hasi ginela eta lan horretan ezagutu ge-nuen Luis. Lerro hauen bitartez gure esker ona azaldu nahiko genioke urte hauetan emandako laguntzagatik eta erakutsitako prestutasunagatik. Besarkada bat sendiari.

Zazpiki Kultur Elkarteak ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienek eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Trenbide kaleko aparkalekua berritu egin behar da: "Trenbide kaleko aparkalekua oso egoera txarrean dago. Estua da, estuegia, eta auto luzeek aparkatzen badute, askotan ez dute pasatzeko lekurik ere uzten. Lurrean, gainera, sekulako zuloak daude; sarreran, bereziki. Apur bar zabaldu eta asfaltoa berritzea ez dut uste horrenbeste eskatzea denik, eta herritarrok izugarri eskertuko genuke".



Autopistako zubitik ur asko erortzen da Ermuaranbide kalera: "Euria egiten duenean ur pila bat erortzen da autopistako zubitik Ermuaranbide kalera. Espaloi ingurura erortzen da ura, eta oinezkoak errepide-ira irten behar izaten dute ez bustitzeko. Gauza bera gertatzen da Eibarrera bidean, 634 errepidean. Maltzagara iritsi baino apur bat lehenago sekulako putzua egoten da errepidean, autopistako zubitik ura erortzen delako, eta hori bai dela arriskutsua. Ur hori ibaira bideratu beharko litzateke nolabait, istripuren bat gertatu baino lehen".



Txalo bat Kultura Sailari filmak jatorrizko bertsoan emateagatik: "Ideia oso ona iruditu zait filmak jatorrizko bertsoan ematearena. Eskerrik asko".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



Azken aukera!!

San Frantzisko 45eko azken etxebizitza!
3.Solairu

Etxebizitza
trastelekuarekin
150.000 € BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua
Armaruak barne

Baldintzak galdetu 943 74 44 67




Gaur-gaurko teknologia automatizatuari buruzko prestakuntza eskainiko du IMHk, Siemensek homologatuta

IMHko irakasleak Siemensen Alemaniako teknologia eta aplikazio zentroan prestatuko dira

Siemens enpresa alemaniarrek CNC Sinumeric bazkide prestatzaile gisa akreditatu du IMH Elgoibarko Makina Erremintaren Institutua, eta horri esker, aurrerantzean IMHn langileentzat antolatzen dituzten ikastaroek Siemensen homologazioa izango dute. CNC Sinumeric erreminta makinaren automatizazio sistema honek funtzionamendu eraginkorra ahalbidetzen du, eta aldi berean, produktibitate altua bermatzen die makinei, bizitza-ziklo osoan zehar. Ikastaro horiek hemen emateko, IMHko irakasleak Siemensen Alemaniako teknologia eta aplikazio zentroan prestatuko dira, industria metalurgikoaren arlo guztietan.

Sortu zenetik IMHk harreman estua izan du Siemensekin (enpresa fundatzailea izan zen 1989an). Gaur egun, Siemens zenbakizko kontrolen prestakuntza eskaintzen du IMHk, enplegurako prestakuntza katalogoko ikastaroetan, eskarrieko ikastarotetan, eta Hasierako Lanbide Heziketan. Orain, azken belaunaldiko teknolo-



Siemenseko ordezkari Daniel Sainz Chaterina eta IMHko zuzendari Joxean Egaña.

giarekin hornitutako Siemens-IMH berriazko gela atondu dute hemen, ikasleek erreminta makinaren sektoreko fabrikatzaile eta erabiltzaileek eskatzen dituzten prestakuntza tekniko eta teorikoa jasotzeko. Beraz, irakasle-teknikariak industria metalurgikoaren eremu guztietan prestatu ondoren, IMHk 2014an Siemensek homologatutako probetxuzko agiria banatuko du langileentzako ikastaroetan.

Bestalde, IMHk eta Siemensek 2014an zehar elkarren arteko zabalkunde teknikoaren jardunaldia egiteko asmoa dute. Bertan sektoreko enpresek Siemens-en teknologiaren azken soluzioak ezagutu ahal izango dituzte, eta baita IMHk garatzen dituen prozesuen berrikuntza eta hobekuntza proiektuetan egiten dituzten aplikazio praktikoak ezagutzeko ere.

Zirardamendin deshobiratu zituzten gorpuetako bi identifikatu dituzte



1936ko gerran Francoren tropek hil eta handik egunetara inguruko baserriarrek hobi komun batean lurperatu zituzten lau lagunengorpuzkinak deshobiratu zituzten Aranzadi Zientzia Elkarteak 2012ko ekainaren 16an, Zirardamendin, Elgoibar eta Markina arteko mugan, eta aste honetan jakinarazi dute identifikatu dituztela haietako bi. Sabin Atutxa Olabari 20 urteko bilbotarrarenak eta Eusebio Gaubeka Gibelondo adin bereko leioarrarenak dira Zirardamendin lur azalera ateratako gorpuzkinetako batzuk, Arana Goiri batailoko Garaizabal konpainiako bi gudarirenak, hain zuzen ere.

2012ko ekainean hasi zuen Aranzadi Zientzia Elkarteak 36ko gerran Zirardamendin hildakoei duintasuna itzultzeko bidea, Elgoibar 1936 taldeak eta Markinaldeko Ahaztuen Oroimena Elkarteak sustatuta, eta bide horretan beste pauso bat izan da hau (www.elgoibar1936.org). Aranzaditik jakinarazi dute aurkitu zituzten gorpuzkinak "oso egoera txarrean" zeudela, baina, zorionez, hagineta DNA (azido desoxirribonukleiko) lagin bat hartzeko aukera izan zutela, eta hori, gaur bizirik dauden senideen DNArekin alderatuta lortu dutela odol-ahaidetasuna egiaztatzea. Halaxe, identifikatu dituzte bi gudari gazteen gorpuk.

Inguruko baserrietako jendeak, eta, bereziki, Bitorio Agotek eta Felix Etxeberriak emandako lekukotzei esker lekutu zuten hobia Aranzadiakoek.

Debabarrenako mankomunitateak auzitara eramango du Zubietako errauste planta egiteko kontratuak eten izana

Kontratuak eteteko erabakia Gipuzkoako “interes orokorren aurka” hartu zela salatu dute

Debabarrenako eta San Markosko mankomunitateek erre-kurtsua jarriko dute Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak eta Zubietako errauste planta egitea egokitu zitzaizen enpresek sinatu zituzten kontratuak eten izanaren kontra. Hala jakinarazi zuten martitzenean Arcadio Benitez eta Denis Itxasok, Debabarrenako eta San Markosko mankomunitateetako presidenteek. Haiekin batera, Ricardo Garate Elgoibarko Hirigintza zinegotzi eta Debabarrenako mankomunitateko presidenteordea eta Mikel Pagola San Markos mankomunitateko presidenteordea ere agertu ziren prentsa aurrera. Kalte ordainetan gastatutako hamahiru milioi euroak berreskuratu nahi dituzte, eta horregatik jo dute auzitara.

Salatzaileek esan dute ezin dutela besoak gurutzatuta gelditu, “herritarrek Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integralean aurreikusitako azpiegiturak eraikitzeke ordaindu duten dirua kalte-ordainetan xahutu dela ikusita”. Kalte ordainetan hamahiru milioi euro ordaindu direla salatu dute, eta horren harira esan dute bertan behera lagatako azpiegituraren ordezkorik ez dela martxan jarri Gipuzkoan. Gipuzkoako Hondakinen Partzuer-

goak azaroan azaldu zuenez, zortzi milioi euroren truke moztu zuten exekuzio kontratua. Erabaki horiek Gipuzkoako “interes orokorren aurka” hartu zirela salatu du orain San Markosko mankomunitateko presidente Denis Itxasok.

Arcadio Benitez Debabarrenako mankomunitateko presidentek adierazi duenez, kuotak igo egin ziren Zubietako planta finantzatu ahal izateko. “Ez du zentzurik kuota berak kobratzen jarraitzea, lanak geldirik daudenean. Planta egiten ariko balira bezala ari dira ordaintzen herritarrek”. Benitezek esan du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari hondakin tona bakoitzeko 145 euroko tarifa ordaintzen diola mankomunitateak. Horren harira Itxasok esan du ez dela zilegi mankomunitateek eta herritarrek zintzo ordaintzea eta Hondakinen Partzuergoak ez betetzea berari dagokion zatia.

Debabarrenako eta San Markosko presidenteek nabarmendu dute epaitegien erantzuna legealdi hau pasatu ostean iritsi daitekeela. Epaitegiek bi mankomunitateei arrazoia emango balie, Itxasok uste du errauste planta egiteko kontratua berriro martxan legokeela.

Familia ugarien elkartekoen hitzaldia, Elgoibarren, hilaren 6an

Hirukidek, familia ugarien elkarteen federazioak, hitzaldia eskainiko du Elgoibarren, otsailaren 6an. Bi helbururekin antolatuta dute: batetik, elkartean egiten duten lana eza-gutzera emateko, eta bestetik, Elgoibarko eta inguruetako familia ugarien beharrak ezagutzeko. “Badakigu garai zailak direla hainbat familiarentzat, eta lehen eskutik ezagutu nahi ditugu horien beharrizanak”, adierazi du Natalia Diez-Caballero, Hirukide gobernuz kanpoko erakundeko zuzendariak. Horretarako, herriz herri ibiliko dira. Gipuzkoako estreinako aurkezpena Azpeitian egin ostean, Elgoibarrera etorriko dira. Kultur Etxean izango da aurkezpen bilera, 18:30etik 20:00etara. Elgoibar eta inguruko herrietako familia ugarietara zuzendutako deialdia dela zehaztu du Caballero. [Hiru seme-alaba edo gehiagoko –edo bikoak, bietako bat elbarritua bada– dauzkatenak dira familia ugariak, eta Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian 21.000 dira]

Aurkezpen horren ostean, herriko merkatariekin eta udal ordezkariekin batzeko asmoa dute, familia ugarietarako laguntzak edo bestelako erraztasunak lortu daitezkeen aztertzeko.

Maalako estalpea aukeratzeko azken eguna: otsailaren 5a

Maalako estalpearen inguruko proiektuak Kultur Etxeko erakusketa aretoan daude ikusgai, otsailaren 5a arte. Erakusketara joaten diren 18 urtez gorakoek proiektu gutxienezko bozkatzeko aukera dute, eta hala egin dute dagoeneko 200 bat lagunek. Hilaren 5ean arratsaldeko 20:30ean itxiko da erakusketa, eta egun horretan bertan zenbatuko dituzte herritarren botoak, 20:00etan. Boto guzti horiek aintzat hartuko dira gero, azken erabakia hartzeko orduan. Izan ere, herritarren botoek %20ko balioa izango dute puntuazio orokorrean. Gainerako irizpideak honako hauek dira: proposamenaren prezioa (%30), ingurura nola egokitzen den (%20), egitura mantentzeak zer kostu suposatuko duen gerora (%15) eta parkearen erabileretara nola egokitzen den (%15).

Rikardo Garate Elgoibarko Udaleko Hirigintza zinegotziak jakinarazi du otsailaren 10eko astean batuko dela epaimahaia. Proiektu irabazlearen egileak proiektua idazteko enkargua jasoko du saritzat. Bigarren proiektu onena, berriz, 3.000 euroekin sarituko dute, eta hirugarren proiektu onenak 2.000 euro jasoko ditu.

Izenak **Mus txapelketa**



Euskal Herriko seigarren mus txapelketako kanporaketak jokatu ziren zapatuan Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren, Unai Cabo eta Mikel Hidalgok irabazi zuten, eta Mendaron, Joxe Idoeta eta Agustin Urbietak. Bi bikote irabazleek Gipuzkoako kanporaketan parte hartuko dute, otsailaren 14, 15 eta 16an, Orion.

Datua **231.528 bisita**

Google Analytics zerbitzuak eskaintako audientzia datuen arabera, 231.528 bisita izan zituen www.elgoibARREN.net gure webguneak 2013an, eta guztira, 400.012 orrialde ikusi ziren iaz [2012an, 208.528 bisita kontabilizatu ziren, eta 378.517 orrialde ikusi]. Horrenbestez, urtebetean %11 egin du gora bisita kopuruak. Era berean, 53.000 erabiltzaile bakar baino gehiago izan genituen iaz, aurreko urtean baino %21 gehiago, alegia. Eguzkeren batez beste, 147 lagunek baino gehiagok erabili zuten elgoibARREN.net eta 635 bisita izan genituen.

Asteko irudia **Lapurreta, Sallobenteko ermitan**



Astelehen goizaldean lapurretan egin zuten Sallobenteko ermitan. Lapurrek dena hankaz gora laga bazuten ere, ostu zutena ez zen asko izan, Udaltzaingotik jakinarazi dutenez. Aspiradora bat, izara bat eta bost bat euro eramán zituzten. Sakristiako atetik sartzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu eta ondoko ate batetik sartu ziren barrura, atea apurtu ostean.

Lourdesera irteera antolatu dute otsailaren 11rako

Lourdesera irteera antolatu dute Lourdesko Ama Birjinaren eguzkerarako, otsailaren 11rako. 6:15ean irtengo dira Elgoibartik. Interesatuta daudenek honako telefono zenbaki honetara deitu behar dute izena emateko: 943 740 822. Autobuseko txartela eta bazkariagatik 40 euro ordaindu beharko dituzte.

Txankakuaren zozketako bost zenbaki saridunen jabeak ez dira agertu


500 euroko bi bono eta ehun euroko zortzi zozketatu zituen Txankakua Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak Gabonetan, 1.800 euro guztira. Jakinarazi dutenez, horietako bost sari banatu gabe dituzte oraindik, inor ez zaielako bila agertu. Honako hauek dira agertzeke dauden zenbaki sari-tuak. 500 euroko bonoetan: 71.459 zenbakidun txartela (Ordezkoa: 62.610). Ehun euroko bonoetan: 74.039 (Ordezkoa: 34.654), 76.083 (Ordezkoa: 00451), 30.066 (Ordezkoa: 21.180), 32.131 (Ordezkoa: 67.000)

Bi lagun atxilotu dituzte Elgoibarren, taberna batean osten saiatzeari leporatuta


24 urteko bi lagun atxilotu zituzten joan zen eguztenez, ustez Maala inguruko taberna batean lapurreta egiten saiatzeari. Ertzainek eta udaltzainek elkarlanean egindako atxiloketa izan zen. Udaltzainek eurek eman zieten abisua ertzainei. Goardia egiten ari ziren bi udaltzainek indarkeria erabiliz barrura sartzen saiatu izanaren zantzuak topatu zituzten taberna atarian. Handik gutxira, bi lagun topatu zituzten Bernardo Ezenarro kalean aparkatuta zegoen auto batean, "lo plantak egiten". Autoan, "lapurretan egiteko erabili daitezkeen erremintak" atzeman zizkieten. Atxilotuetako batek aurrekariak zituen.

Abenduan...

JAIOTAKOAK



Aitana Agea Martinez
Abenduak 4
Felix eta Raquel



Igor Etxabe Urkia
Abenduak 30
Ibai eta Olatz



Aimar Romera Lete
Abenduak 4
Aitor eta Maider

Davino Senga Wawa
Abenduak 18
David eta Nono

Markel Perez-Cortes
Iriondo Abenduak 21
Alberto eta Erika

EZKONDUTAKOAK

- **Augusto Vazquez Gonzalez** eta **Rosania Oliveira De Jesus**
Abenduak 20

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

HILDAKOAK

- Antonia Urrutia Jauregi** • 92 urte • Abenduak 1
- Antonio Ansola Arrieta** • 82 urte • Abenduak 2
- Patrocinio Gomez Tudela** • 85 urte • Abenduak 5
- Ladislao Iñiguez Agirre** • 95 urte • Abenduak 16
- Pedro Arosa Agirre** • 90 urte • Abenduak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak
Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

III. URTEURRENA

FERNANDO AZPIAZU URIBETXEBERRIA

2011ko urtarrilaren 30ean.

"Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan"



III. URTEURRENA

JESUS GARIALDE MUGERZA


2011ko urtarrilaren 31n hil zen, 54 urte zituela.

Espero dugu ondo izatea.

Zure emazte Enkar, seme Asier, guraso Jose eta Marialui, senide eta lagunek bihotzean zaitugu.



Ekaitzaren ostean barealdia



Alderik alde zeharkatu zuen tifoia Filipinetako lurraldea.

Azaroan 8an Filipinetako kostaldea suntsitu zuen 'Haiyan' tifoia. Ohikoak dira tifoia eta *tsunamiak* ingurune hartan, eta jakitun ziren 'Haiyan' iristear zela, baina ez zuten uste hainbesteko kalteak eragingo zituenik. Itsasoak ehun bat metro jan zizkion lurrari, haizeak etxeak eraman zituen, zuhaitzak sustraietatik aterata geratu ziren, eta hainbat familia oso-osorik desagertu ziren. Naturak eragindako ezbehar horri berehala erantzun behar zitzaion, eta larrialdi egoera aktibatu zuten. Berehalako laguntza emateko Gurutze Gorriaren talde horietako batean joan zen Pedro Perez Filipinetara.

Ainhoa Andonegi

Pedro Perez donostiarra da jaiotzez, baina Mendaron bizi da azken zazpi urteotan. Anbulantzia medikalizatu bateko gidaria da ogibidez, baina horrez gain, boluntario dihardu Gurutze Gorrian. 1982an sartu zen Gurutze Gorrian, eta azken zortzi urteotan Eibar-Ermua sektoreko presidentea da. Lan asko eta

desberdinak egin izan ditu urte hauetan guztietan Gurutze Gorrian: begirale, sorosle, sorosleen monitore, anbulantzietako boluntario... Ezbeharren aurrean laguntza psikosoziala emateko taldean ere egin izan du lan, eta M11ko atentatuan esate baterako, biktimen senideei babes psikologikoa ematen aritu zen. Nolabait esateko, Espainia mailan egin

daitezkeen lan mota gehientsuenak egin ostean, Gurutzen Gorrian “goia jo” zuela uste zuen. Beste jauzi bat emateko unea iritsi zela sentitzen zuen, nazioartean lan egiteko unea, hain zuzen.

Familiakoekin hitz egin, eta nazioartean lan egiteko ikastaroetan eman zuen ize-na. 2011n eta 2012an egin zituen formazio ikasketak, eta 2013an jaso zuen lanerako lehen deia.

Haiyan tifoia Filipinetako kostaldea jo zuen azaroaren 8an. Tifoi eta *tsunami* zonaldea da hura, eta urtero jasaten dituzte naturaren erasoak. 2013an izan den 24. tifoia izan da *Haiyan*, baina uste zutena baino bortitzago sartu zen. Orduko 314 kilometroko abiada hartu zuen haizeak, eta orduko 378 kilometroko boladak ere neurtu zituzten. Haren atzetik, gainera, *tsunami* bat etorri zen eta 25 metroko olatuak sartu ziren itsasotik lurrera. 100 metroko hondar guneak jan zituen urak, eta hondar hori guztia lurrean zehar zabaldu zen. Leyte irlak jasan zituen kalterik handienak, Tacloban hiriak bereziki, baina beste hainbat zonaldeetan ere igarri zituzten tifoia eraginak. Kalteak sekulakoak izan ziren: haizeak hegana eraman zituen etxebizitzak, palmondoak sustraietatik atera zituen urak eta bost mila lagun inguru hil ziren. Familia batzuk hegoalderantz ihes egiteko aukera izan zuten, baina gehienak han bertan harrapatu zituen tifoia. Kalte horien aurrean, berehalako erantzuna emateko lanari ekin zion Gurutze Gorriak, beste hainbat erakunderekin batera.

Mundu guztian zehar ditu Gurutze Gorriak delegazioak, eta herrialde bakoitzak zeregin bat izan du: Espainiako Gurutze Gorriak lau talde bidali ditu Asiako herrialdera edateko ura lortzeko eginkizunetara, eta talde bakoitzak hilabetez jardun du lanean. Bigarren lantaldean joan zen Pedro, eta dagoeneko laugarrenak dihardu lanean, ekipamentu guztia batzen.

Azaroaren 28an iritsi zen Pedro Perez Filipinetako Leyte irlara, Tolosa izeneko herrialdera, hain zuzen ere. Hondartza ondoan dago Tolosa, Filipinetako irla batean. Larrialdi egoeretan hiru izaten dira ezbeharrak jasan duten bizilagunen behar nagusiak: etxebizitza, jatekoa eta ura. Pedro Perez edateko ura lortzeko taldean dago Gurutze Gorrian, eta lan horretan jardun du. Filipinetan uda da orain, eta 40 gradutik gora egiten du egunez, %90etik gorako hezetasunarekin, hortaz, ura eskura izatea ezinbestekoa da bizirauteko. Etxeetan ez daukate urik. Iturri komunak dituzte herrian zehar eta hara joaten dira ur bila edo ur putzuetatik ateratzen dute ura, baina tifoia eraginez ur hori guztia kutsatuta geratu da. “Kilometroak egin behar izaten zituzten oinez edateko ur bila, eta askotan nahiago izaten zuten kutsatutako ura edatea, distantzia luze horiek oinez egitea baino”. Ura gerturatzeko

‘HAIYAN’ ZENBAKITAN

Leyte uhartea izan zen kaltetuena. 5.000 lagun inguru hil ziren, gehienak itota edo eraikinak gainera erorita, eta bi mila inguru daude desagertuta. Tacloban hiriburuan izan zen sarraski handiena —220.000 biztanle ditu hiriak—.

- Haiyan tifoia Filipinetako 9,7 milioi pertsonari eragin zion, 36 eskualdeetan.
- 853.657 familia desplazatu behar izan dituzte, zonalde seguruetara.
- 1.177.194 etxebizitza hondatu zituen tifoia.
- 588 milioi euroko galerak eragin ditu.
- 21.379 familia (103.604 pertsona), 386 ebakua-zio zentroan bizitzen daude oraindik.
- Filipinetako Kongresuak 12.000 milioi pesoko (275.000 dolar) aurrekontua onartu du 2014rako, zonalderik kaltetuenak berreraikitzeko.
- Espainiako Gurutze Gorriak 4.687.432 litro ur garbitu ditu.
- Garbitutako litro horietatik, 4.378.576 litro banatu dituzte kaltetuen artean.
- 1.459.525 pertsonak jaso dute ur hori.
- 641 konponketa egin dituzte iturrietan.
- 1.487 analisi kimiko.
- 56 boluntario hezi dituzte, ura garbitzeko lanetan.



Ezkerrean, Pedro Perez. Erdiko argazkian, Pedro Perez umez inguratuta. Eskuman, Gurutze Gorriko boluntarioetako bat iturriko ura hartzen.

■ ERREPORTAJEA

eta etxetik gertu zituzten iturrietako ura garbitzea izan da helburua. Fil-troen bidez kentzen zioten urari zikinkeria gehiena, eta kloro pilulak era-biluz egiten zuten edangarri. Hango bizilagunak ez daude kloro zapo-rea ohituta, eta ura probatzeko mesfidati azaltzen ziren: “Hasieran ez zi-ren fidatzen eta geuk edan behar izaten genuen lehenengo, edateko ura zela egiaztatzeko”.

Hilabete egin du Filipinetan, eta iturri gehienetako ura garbitu dute. Bi milioi eta erdi litro ur garbitu dituzte hilabetean, eta gutxi gora behe-ra milioi bat erabiltzailerik banatu diete ur hori. Baina hori baino lan ga-rrantzitsuagoa, akaso, hango bizilagunei ura garbitzen irakastea izan da. Beharrezko materiala utzi diete han, bakoitzak bere etxean ura gar-bitu eta edan ahal izateko.



Gurutze Goriaren lanerako gunea. Ura garbitzeko sei planta eraman zituzten.

Gabon tristeak

Herialde gehientsuenetan bezala, Gabonak ospatzen dituzte Fili-pinetan. Tifoia lagatako zikinkeria guztiaren artean, Gabonetako apaingarri hornitutako zuhaitzak ikusten ziren nonahi: “Hemen zoratu egiten dira batzuk zuhaitzak atontzeko, eta han edozer gauza erabil-tzen zuten”. Sinismen handikoak dira hango bizilagunak, eta horrelako ezbeharren aurrean ere fedeari eutsi diote: “Egunero hartzen zuten errezurako tarte bat, eta beraien etxebizitzak konpontzen hasi aurretik, elizak garbitu eta egokitu zituzten”. Beste modu batean bizi dira. Leku askotan ez daukate argindarrik, eta eguzki argiarekin bizi dira. Eguzkia irteten denean esnatu, eta eguzkia ezkutatzeko denean oheratzen dira: “Hemen ordubetez argia joaten zaigu, eta erabat galtzen gara”.

Biztanleriaren erantzuna, bikaina

Ura edangarri egiteko, 800.000-900.000 euro balio duen tresneria eraman zuten lanerako: ura garbitzeko sei planta, ura biltzeko tresnak,



2,5 milioi litro ur garbitu zituzten hilabetean.



Tifoia lehenengo, eta tsunami ondoren, sustraietatik atera zituzten palmondoak.

ura banatzeko depositoak, kanping dendak... “Ez da broma”, esan du Pedrok. Filipinetako ezbeharri aurre egiteko bost milioi euro batu di-tu Espainiako Gurutze Goriak erakundeetatik eta herritarrek emanda-ko laguntzetatik, eta hori eskertu nahi du Pedrok: “Espainiako krisi ego-era kontuan izanda, herritarren erantzuna bikaina izan da. Herritarrek, oro har, oso ondo erantzuten dute beti horrelako ezbeharren aurrean, eta txalotzekoa da”.

Esperientzia izugarria

Esperientzia “gogorra” izan dela aitortu duen arren, izugarri beteta itzuli dela adierazi du. Urte asko daramatza Gurutze Gorian, eta asko ikustea tokatu zaio. Horrek guztiak lagundu dio Filipinetan burua hotz mantentzen, bestela, erraza baita behera etortzea, eta horrelakoan ezinbestekoa da sendo egotea. Eginbeharreko zeregina argi edukitzea oso garrantzitsua da: “Gu ura garbitzera joan gara, eta horretara soilik. Umeak eskean hurbiltzen zitzaizkigun, baina ezin zara horretan erori, denei ematea ezinezkoa delako”. Une tristeak bizi izan dituzte, nekea ere sekulakoa izan da, baina hango bizilagunen harrerak eta esker onak erabat bete du Pedro: “Bazekiten laguntzera gindoazela, eta egu-nero eskertzen ziguten. Irribarrez ematen zizkiguten eskerrak, eta hori hungigarria zen”.



Laguntza eskatzeko mezuak irakur zitezkeen nonahi.

Gogorrena irla uztea egin zitzaion Pedrori, eta negar malkotan irten zen Filipinetatik. “Hilabetez, 24 orduz egin ditugun harremanak sendoa-ki izan dira, eta haiek guztiak han lagatzeak nahigabe handia eman zi-dan”. Eginiko lanarekin “pozik” itzuli da Pedro, baina jakin badaki ingu-rune hura guztia berriz lehengoa izan arte denbora asko beharko dela. Beraien lana bukatu da, badute edateko ura, baina oraindik lan asko dago egiteko: “Ezbeharra gertatzen denean hedabideetan ez da bes-te konturik izaten, baina berehala isiltzen dira horrelako kontuak, eta jendeak ere hein batean nahiago du ahaztea”. Berari, baina, ez zaio berehalakoan ahaztuko han ikusi eta bizitakoa. Berehalako erantzuna emateko ekimen batean parte hartu duen estreinako aldia izan da Fili-pinetakoa Pedrorentzat, baina ez da azkena izango.

Erretratu zaharra



1971

Aste honetako erretratu zaharra Miguel Anjel Arriolak ekarri du BARRENERA. 1971n ateratako argazkia da, Mendaroko Plaza auzoan, hain zuzen ere. Erreka gurutzatzeko egurrezko zubi bat zegoen garai hartan Plaza auzoan, eta hantxe atera zuten argazkia. Gogora ditzagun zeintzuk diren mendaroar hauek:

Ezkerretik eskumara:

Asensio Mendikute (†), Luis Molina (Jaengoa, garai hartan Mendaron zegoen maisu), Miguel Anjel Arriola eta Miguel Mendikute (†).



DANOBATGROUP

Amage Kalea, 2
700. Box 33
E-20870 ELGOIBAR Spain

Tel.: +34 943 74 83 00
danobatgroup@danobatgroup.com
www.danobatgroup.com





XABIER ALZAGA

DANOBATGROUP-eko RAILWAYS ALORREKO ZUZENDARIA

Gure gertuko industriak behar zuen albistea eman zuen Mondragon Korporazioko DanobatGroup kooperatiba taldeak urte amaieran: erreminta makinaren sektorean sekula lortu den eskari handiena lortu zuen, 103 milioi eurokoa. Hiru kontratu dira berez, eta horiek izenpetuta, itxaropentsu hasi dute urtea. Xabier Alzaga (Eibar, 1976) da DanobatGroup-eko Railways alorreko zuzendaria, eta berak eman dizkigu azalpenak, Osintxun (Bergara) duten lantegian.

“Teknologia eta balio handiko irtenbideak eskaini behar ditugu”

Zer izan da zuentzat eskari hau lortzea?

Guretzat handia izan da. Izatez hiru kontratu dira, hiru lerro. Bata, Indiako da, eta beste biak, Australiarako. Indiako lerroak bidaiarien garraiorako diren trenetan segurtasuna eta erosotasuna handitzeko da- goen eskariari erantzuten dio berez, eta bi alderdi hartzen ditu kontuan: fabrikazio lanak eta mantenu lanak. Bidaiarien trenentzako gurpilak eta ardatzak egingo dituen makina eta sistema muntatuko ditugu Indiako Gobernuak berak sortu duen enpresa batentzat, gero hark produktu edo pieza horiek, gurpilak eta ardatzak, egin ditzan. Giltza eskura tipoko proiektua izango da berez, eta instalazioak hamabost bat ekipu automatizatu izango ditu guztira. Esan dezakegu gure produktu tradizionala dela Indiatik eskatu diguten hau, orain urte batzuk Errusian egin genuenaren parekoa, nahiz eta produkzioa txikiagoa izango den kasu honetan. Beste kontu bat dira Australiako proiektuak. Kontzeptu berri- tzailegoa da hangoa. Meatzetako trenen mantentze lanak egin ahal izateko tailer automatizatua sortuko dugu. Meategiak oso apartean dau- de han, iristen zailak diren lekuetan, basamortuan, eta portutik meate- gira kilometro askotako bidea dute. Distantzia ez dakit zenbatekoa

izango den, baina Europa guztia zeharkatzea beste izango da. Eta ja- kina, ez dute trenak eta bagoiak puntuan jarriko dieten inor inguruan. Tailer osoa muntatuko dugu guk; trenaren funtsezko osagaietan –bo- gie eta muntatutako ardatzak– munduan instalaziorik aurreratuena izango da. Proiektu horiei behar bezala erantzuteko, gainera, lankide- tza hitzarmen bat sinatu dugu han bertako enpresa batekin. Hango baldintzak, oro har, oso gogorak dira, eta guretzat oso lagungarri izan- go da han bertakoekin jardutea lanean, beraiek direlako hango egoera ondoen ezagutzen dutenak.

Zeintzuk izan dira zuen lehiakide nagusiak oraingoan? Eta zein uste du- zu izan dela zuen balio erantsia kontratu horiek eskuratzeko?

Australiako lotu dugun kontratu honetarako Alemaniako enpresa bat izan da gure lehiakide nagusia. Horrelakoak egiteko ahalmena duten enpresak ere ez dira asko, ez pentsa, eta eskariak ere ez dira asko izate- ni. Biok jaso genuen bezeroaren gutuna. Aurre-azterketa bat egin nahi zutela esan ziguten, maila honetako instalazio bat egiteko zer no- lako ahalmen industrialak eta teknologikoak geneukan ikusteko, eta bide batez, guk aurrez egindako lanak ikusi eta gerora behar bezala eran-

“Gure hornitzaileek igarriko dute onura. Eskari guztien %66 maila lokalean egingo da”

tzuteko gai izango ginen aztertzeko. Etorri ziren bi-hiru aldiz ere hona, eta itxuraz gustatu zitzairen ikusitakoa, geu aukeratu gintuztelako, baina harremanetan jarri ginenetik kontratua sinatu arte pasatu dira ia bi urte.

Alemaniarren enpresa baten kontra jardun duzue pultsuan. Nola ikusten zenuen zeuen burua joku horretan?

Alemaniarrekiko desabantailan geundela ikusten genuen, eurek bazutzelako lehendik ere zeozertxo Australian, eta guk ez. Horregatik, gure ahulgune hori indartzeko, sinatu genuen lankidetzaren hitzarmena lehen esan dizudan beste enpresa australiar horrekin. Garbi geneukan instalazio proiektuaz gain, gerora begirako bermeak ere eskaini behar genizkiola bezeroari, eta esango nuke hangoekin hitzarmena sinatze hori erabakigarria izan dela geuk irabazteko. Apustu sendoa egin dugu, baina balio izan du bezeroaren konfiantza irabazteko, azken batean, horri esker, behar gaituzten guztian izango gaituztelako ondoan. Horri guztiari antzeko proiektuetan daukagun eskarmentuak eman digun izena, gure merkatu-apustua, eta egin genien eskaintza komertziala –zer, zenbat dirutan– gehitu behar zaizkio, jakina.

Zer egitura daukazue gaur eskaera horiei erantzuteko?

Orain 50 bat lagun egongo gara bulegoko lanean, eta tailerrean hogeitatu bat.

Aldrebes izango zela esango nuen ba nik.

Ez. Fase honetan ez behintzat. Halako instalazio batek eskatzen duen dokumentazio guztiari erantzuteko eta diseinu-lanetarako jende asko behar da. Jo ezazu hau hiru urterako lana dena. Bada, orain, kargarik handiena bulegoko lanak hartuko du, baina gero, muntatze-lana hasten denean, proportzio hori aldatu egingo da. Hiru kontratuei, gainera, aldi berean erantzun behar zaie, eta horrek egitura daukagun desoreka handiagoa izatea dakar. Gaur, iaz baino hamar-hamabi bat lagun gehiago egongo gara bulegoan.

Zenbat denborarako lana sartu dela aurreikusten duzue kontratu hauek sinatuta?

Diseinua, fabrikazioa, martxan jartzea eta abiaraztea... 2015a arteko lana izango dugu hori guztia egiteko. 2016a, berriz, garantia urtea izango da, eta bezeroak berak behar gaituenaren arabera izango da lana. Ordura arte, baina, ez gara aspertuko, ez.

Zuek izango duzue lana, baina ingurukoek igarriko dute onurarik?

Bai, jakina. Guk hornitzaile sare zabala daukagu hemen inguruan, eta horiek igarriko dute. Ez naiz izenak ematen hasiko, baina ziurta dezaket eskari hauek eragin handia izango dutela gure kooperatibaren hurbileko inguruan. Iñigo Ucin DanobatGroup-eko zuzendari nagusiak esan zuen aurkezpenean: eskari guztien %66 maila lokalean egingo dira, eta ehuneko horretatik herena normalean DanobatGroupekin lan egiten duten hornitzaileei azpikontratatu zaie. Betikoa da kontua: bat ondo badao, ondokoa ere hobeto ibiltzeko bidea dago.

Fagor Etxetresnakekin gertatu zenaren ostean, kooperatibak behar zuen halako albiste bat. Lanez nola dabil DanobatGroup?

Lana badaukagu. Aeronautikarako artezte makinak, automoziorakoak, artezte makina astunak, zerrak, trengintza alorra... DanobatGroup ba-

rruan unitate asko daude, eta horien guztien batura da kooperatiba taldea. Badira batzuk lan gutxiagorekin, bai, sortzen ditugun produktuak ere ezberdinak direlako eta alor batzuetan lehiakortasun handiagoa daukagulako, baina denok batera lortzen dugun batez besteko hori gara gu, eta momentuan ondo gaude. Hau da: guk trengintzan egiten duguna salgarria da kanpoan, baina zerra bat beharbada ez horrenbeste, ezaugarri bereizgarri gutxiago dituelako.

Zer tipotako produktuak du gaur merkatuan lekua?

Teknologia eta balio handiko irtenbideak eskaini behar ditugu. Australian egiteko asmoa dugun tailerraren antzekoak ez dira hilerok saltzen. Hilean halako eskari bi sortuko balira, berehala urratuko lukete merkaturia enpresa edo talde handiek. Merkatua ondo aztertu eta gure lekua bilatu behar dugu, makina estandarekin jai daukagu.

Pentsatzen jarrita, lekutan dago Australia! Hango baldintzak ere ez dira Europakoak. Zerk kezkatzen zaitu gehien?

Urruti dago, bai. Ekipo guztiak garraiatzeko bi hilabete inguru behar harko ditugu, eta mesedez, iritsi daitezela! Bilboko portutik irten-go dira Fremantleko portura, eta han, kamioietan kargatu eta Australiako desertuan barrena, hemendik Errusiara besteko bidea egingo dute, kaxetan. Gauza bat dauka ona Australiak, hala ere: urrun dago, baina herrialde garatua eta serioa da, eta horrek lasaitasuna ematen du. Beste gauza bat izango litzateke hau dena Errusiara bidali beharko bagenu!. Orduan bai egongo nintzateke la larri. Hara kaxa betea bidali eta beti izaten da erremintaren bat falta izateko arriskua. Dena den, beste zailtasun batzuk baditu Australian jardun beharrak, eta proiektua aurrera doan heinean, aurreikusi gabeko beste mila arazo ere sortuko zaizkigu, seguru. Gaur, adibidez, 45 graduko tenperatura dute han. Gauza asko hartu behar dira kontuan: legeria, hango baldintzak, langileen segurtasuna... Kezkak asko eta askotarikoak dira. Dena den, hango enpresa horrekin sinatutako hitzarmenak bidea ematen digu hango errealitateaz dugun “ezjakintasunari” hobeto erantzuteko.

Zailena egin duzue. Horri erantzun egin behar zaio orain. Aurrera begira zer?

Urte askoan erreferente izan denari [Alemania] itzala egitea lortu dugu, eta orain, bi dira gure erronkak: honi ganoraz erantzutea eta palanka honek emandako indarra baliatzea eskari berriak lortzeko. Hemen ez dago bromarik. Hemengo jatekoarekin dena konkistatzen den uste hori ustela da, eta *Made in Elgoibar* edo *Made in Euskadi* jartze hutsak ere ez du ezertarako balio; ezta *Made in Spain* jartzeak ere. Asko oraindik harritu egiten dira, barren, *Made in Spain* irakurtzen dutenean! ‘Espainian makinak egiten dira, ala?’, galdetzen dute. Topiko asko daude. Australiarren adibidea jarriko dizut. Gustura izan aldera, eskaini genizkien kokotxak eta abarrak jateko, eta ezer ez. Etorri ziren lehenengo egunean, jatetxe txinatar batera joan ziren. Atera kontuak! Onak garen neurrian bakarrik da salgarri kanpoan hemen egiten duguna. Bestela, jai dago.

Josu Mugertza

Sukaldaria

Bikotekiderik gabekoentzat afaria antolatu zuen Josu Mugertza sukaldariak. Emaztegabe eta senargabe, banandu, dibortziatu eta alargundutakoa, hain zuzen ere. 115 lagun batu ziren afari bitxi horretan, 85 emakume eta 30 gizon. Zapatuko giro hotza berotu zuten Belaustegin.



Arg.: Javi Leon

“Harmonia onean joan zen afaria eta giro bikaina sortu zen”

Nolatan bururatu zitzaizun bikotekiderik gabekoentzako afaria antolatzeara?

Lagun batekin joaten naiz sarri Eibarrera dantzara, eta hantxe hizketan geundela bururatu zitzaigun ideia. Egia esanda, krisi garai honetan gauza berriak asmatu behar dira etengabe. Gustatuko litzaidake horrelako beste ideiarekin bat bururatzeara! Egoera gogorra daukagu, eta krisi ekonomikoaren eragina asko igartzen dugu, neguan batez ere. Udan jendea gehiago irteten da, baina negua gogorra ari da izaten.

Zer moduz irten zen afaria?

Oso oso ondo! Sekulako arrakasta izan du ekimenak. Hasieran Debarrenerako bakarrik antolatu genuen, baina jendearen interesa ikusita, eremua zabaltzea behar izan genuen, eta Elgoibartik edo Eibartik baino jende gehiago etorri zen kanpotik. 115 lagun izan genituen guztira, horietatik 30 gizonak. Izena emateko epea uste baino lehenago itxi behar izan genuen, jangela handian ez zegoelako gehiagorentza-

ko lekurik. Pena eman zidan jendea kanpoan utzi beharrak, baina ez neukan gehiagorako lekurik.

Nola izan zen funtzionamendua?

Lehenengo gizonezkoak sartu ziren jantokira, eta mahai desberdinetan eseri ziren. Ondoren, emakumeak sartu ziren, eta bakoitzak erabaki zuen non eseri.

Eta, sortu al zen bikoterik?

Hori ez dakit, baina jende berria ezagutzeko aukera bikaina izan zen. Jendea ondo pasatzeko gogoz etorri zen, eta nik uste dut oso ondo pasatu zutela. Lehenengo afaria eman genuen, eta segidan DJ batek jarri zuen musika. Goizaldeko 3:30 aldera arte egon ziren hemen. Harmonia onean joan zen afaria, eta giro bikaina sortu zen.

Errepikatzeko asmorik?

Bai, errepikatuko dugu, dudarik gabe. Oso pozik gaude jendeak eman duen erantzunarekin, eta apirillean berriro egingo dugu.

Ikastolako eta Herri Eskolako umeak Xoxoten izan ziren Morkaikorekin

Urte osorako egitasmoa prest dauka mendi elkarteak



Morkaikok antolatuta Xoxotera joan ziren Ikastolako eta Herri Eskolako ume eta gurasoak domekan. Euririk ez zuen egin domeka goizean, eta ibilbide guztia egiteko aukera izan zuten. Aittolako aparkalekutik abiatu, eta Xoxoteko aterpetxeraino joan ziren. Taldeko batzuk Xoxoteko gailurreraino igo ziren, eta hango buzoian sartu zuten txarteltxoa. Ondoren, salda eta txorizoa hartu zuten aterpetxean bertan.

Urteko egutegia

2014rako prestatu dituzten ekintzen eta irteeren egutegia jakitera eman du Morkaiko Mendizale Elkarteak, eta aurten ere era guztietako ekintzak antolatu dituzte. Mendi irteerak, bizikleta ibilaldiak, mendi-eskia egiteko irteerak... Gustu guztietako jendearengana iritsi nahi dute, eta Morkaikoko ateak herritar guztientzat zabalik daudela gogorarazi dute. Besteak beste, otsailaren 15ean mendia eta sagardotegia uztartuko dituzte, martxoaren 8ko asteburuan Pirinotara joando dira mendi eskia praktikatzera, eta Aste Santurako mendi-eskia eta raketak jarri dituzte aukeran. Maiatzeko zubirako BTT irteera prestatu dute, Oionetik Berme-roa. Horrez gain, Morkaiko Eguna ere maiatzean egingo dute. Egutegi guztia www.morkaiko.net helbidean kontsultatu daiteke. Bestetik, Sargoateko iturriko lanak amaitzeko irteera antolatu zuten joan zen zapatarako, baina eguraldi iragarpenak ikusita, atzeratu egin dute. Printzipioz, otsailaren 8rako egin dute deialdia.

Tobazoko krono-eski igoera irabazi du Iñigo Larizek



Joan zen zapatuan jokatu zuten Tobazoko mendi eski krono-igoera Candanchuko (Huesca) eski estazioan, eta Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen azkarrena. Larizek 18 minutu eta 13 segundo behar izan zituen proba amaitzeko Eguralidak lagundu ez bazuen ere, 81 lagunek amaitu zuten proba. Horien artean beste hiru elgoibartar zeuden: Arkaitz Irureta (9.), Ioritz Konde (15.) eta Aitor Azkue (34.) Emakumezkoetan Ainhoa Lendinezek seigarren egin zuen, 31:19 denborarekin.

EMAITZAK

FUTBOLA

Retuerto 1 – Haundi 0 (3. maila)
Zestoa 4 – Elgoibar 1 (Erreg.)
Elgoibar 0 – Hernani 3 (Neskak)
Elgoibar 4 – Beasain 0 (Jub. A)
Urki 1 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Elgoibar 0 – Zarautz 3 (Kad. B)
Elgoibar 18 – Lagun Onak 0 (Lehen Inf.)
Elgoibar 5 – Anaitasuna 1 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 5 – Jaca 2 (Nazional B)

ESKUBALOA

Deca Elg. 32 – Zalla Pulpo 14 (Inf. mut.)
Bankoa Elg. 20 – Aloña Mendi 27 (Inf. mut.)
Leizaran 24 – Txarriduna Elg. 25 (Kad. mut.)
Aiala 7 – Aterpe Elg. 33 (Inf. nesk.)
Alcorta Elg. 24 – Trapagaran 23 (Sen. mut.)
Lauko Elg. 18 – Lanzarote 38 (Sen. nesk.)
Beristain Elg. 25 – Hondarribi 24 (Jub. mut.)
Aloña Mendi 28 – Pneumax Elg. 17 (Kad. mut.)
Alaves 26 – Murgil Elg. 16 (Kad. nesk.)
Gabaz Elg. 23 – Aloña Mendi 23 (Sen. mut.)
Bera Bera 16 – Tecnifuelle Elg. 25 (Kad. nesk.)

PILOTA

Añorga 22 – Lagunak 5 (1. mailako nag.)
EPLA 22 – Lagunak 17 (2. mailako jub.)
Lagunak 14 – Hondarribi 22 (3. maila kad.)
Pala
Lagunak 25 – Ategorrieta 14 (2. maila nag.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1
10:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Inf.)
12:00 Elgoibar – Lazkao (Jub.)
16:30 Haundi – Balmaseda (Pref.)
Domeka, 2
16:30 Elgoibar – Lazkao (Erreg.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 2
King-Kong Elg. 5 – Laskorain B 2 (Jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 1
11:30 Cometel Elg. – Aiala C (Inf. nesk.)
12:45 Txarriduna Elg. – Amenabar (Kad. mut.)
16:00 Tecnifuelle Elg. – Errotaberri (Kad. nesk.)
19:15 Pneumax Elg. – Aloña Mendi (Kad. mut.)
Domeka, 2
9:45 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)
11:00 Aterpe Elg. – Aiala (Inf. nesk.)

PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 31
21:30 Lagunak – Zestoa (2. mailako jub.)
22:15 Lagunak – Iparraldekoak (1. mailako nag.)

JAVIER ELORZA

Historialaria

Javier Elorza Historian lizentziaduna da, eta hainbat liburu idatzita dauzka dagoeneko. Oraingo honetan Santa Klarako komentuari buruzko liburu bat idatzi eta argitaratu du. XVI. mendekoa da Klaratarren komentua, eta sorrerako etapari buruzko informazioa jaso du. Gorostiza eta Pitxintxu liburu dendetan eskuratu daiteke liburua.

“12 urterekin sartzan ziren moja neskatilak XVI. mendean”

Zer dela-eta erabaki duzu Santa Klarako komentuari buruzko liburua idaztea?

San Frantziskoko komentuari buruzko informazio bila ari nintzen. San Frantziskoko komentua iturriaren goiko aldean zegoen, San Frantzisko kalean, baina horri buruzko informazio gehiena Zarautzen dago, eta han nenbilela, Santa Klarari buruzko dokumentu batzuk aurkitu nituen. San Frantziskoko fraileek eta Santa Klarako mojek bazuten harremana, eta garai hartan denak ezagunak ziren. Informazio horren harira Santa Klarako komentuko artxibora jo nuen. Sekulako desastrea aurkitu nuen. Dokumentu guztiak tolestuta, bata bestearen gainean gordeta, kaxetan sartuta... Aita santuak emandako bulak ere larrukietan jasota dituzte, baina zaindu gabe zeukaten dena. Pergaminoa ondo kortserbatzeko baldintza jakin batzuetan gorde behar da, eta artxibo hark ez ditu betetzen. Material asko aurkitu nuen, eta dokumentu interesgarriak zeuden, bereziki, XVI. mende hasierakoak. Mojak, gainera, oso ondo portatu ziren nirekin. Dokumentu guztiak jarri zizkidaten eskura, komentua erakutsi zidaten, eta liburu bat merezi zutela pentsatu nuen.

Zein prozedura jarraitu zenuen?

Aurkitutako dokumentuak jaso, digitalizatu eta transkribatu egin nituen. Dokumentu batzuetako letra oso txikia zen, eta kostatu zitzaidan dokumentu batzuk ulertzea. 1600. urtean hasten dira dokumentuak. Horren aurretik gauza gutxi dago; sortzaileen izenak eta Vatikanotik bidalitako aita santuaren bula bat. Ordu asko pasatu nituen materiala apur bat txukuntzen. Ohituta nago artxibo-lana egiten, sarri egon izan naiz



Salamancan edo Valladolidedeko artxiboetan ere.

Noizkoa da komentua?

1533. urtean hasi zen komentua martxan. 1528an Pedro Gonzalez de Jausoro eta Maria Ramos de Sarasua senar-emazteek testamentuan utzi zuten komentua egiteko lursaila. Zubi-Ondo elkartea dagoen lekuan zegoen Sarasuatarren etxea, eta aldamenean, Jausorotarrena. Biak ezkondu ziren, eta hil zirenean lursaila utzi zuten, komentua egiteko. 1530. urte ingururako obrak nahiko aurreratuta zituzten, eta handik hiru urtera iritsi ziren lehenengo mojak, Oñatiko Klaratarrak. Hiru moja etorri ziren: Getariko Juana de Ganboa, Elgoibarko Ganboatarren familiakoa. Beste bat elgoibartarra zen. “Maria de Elgoibar” izenez ageri da dokumentuetan, eta gero aurkitu dut Maria Arteaga zela. Hirugarrena Oñatiko Katalina Elorriaga da.

Nolakoa zen mojen bizimodua?

Ora et labora ziren hemengo mojak. Errezatzeaz gain, ortuan ere lan egiten zuten. Arau zorrotzak zituzten, eta horrek atentzioa deitu dit. 12 urterekin sartzan ziren moja neskatilak XVI. mendean, eta 6-8 urterekin hasten ziren sarrera-probak egiten. Ezkontzak familiak erabakitzen zituen bezala, moja sartzea ere familiak erabakitzen zuen. Jaungoikoa-ekin ezkontzera derrigortzen zituzten asko. Gaur egun gainbeheran daude komentu gehienak. Elgoibarkoa txukun dago, berria da, baina Azkoitikoa, esaterako, oso zahartuta dago. Komentu garrantzitsua izan zen hura, baina gaur egun moja gutxi bizi dira han. Zarautzen ere hiru bat fraile bakarrik geratzen dira. Gaur egun jende gutxi sartzan da moja edo fraile.

‘Besta Berri’ euskal dantzen inguruko ikuskizunean parte hartuko dute Haritz dantzari taldekoek bihar, Iruñean

Juan Antonio Urbeltz antropologoak Argia taldearentzat sortutako ikuskizuna da

Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldekoek bihar Iruñeko Baluarten taularatuko duten *Besta Berri* euskal dantzen ikuskizunean parte hartuko dute (20:00). Corpus Christiren inguruko festetan inspiratutako emanaldia da *Besta Berri*, Juan Antonio Urbeltz antropologo eta folkloristak Argia dantza taldearentzat sortutakoa. Ikuskizunak hiru zati izango ditu: *Besta Berri* Sarrera (Herensugea, Ezpata Dantza, Heletakoen sarrera, Lapurdiko makil dantza eta Muxikoa), Oteizaren Apostoluen Soka Dantza (Oñatiko Dantzak, Seien Bourrea eta Apostoluen Soka Dantza) eta, azkenik, Muriska (Muriska eta Azken agurra).

Haritz dantzari taldekoek gain, honako beste dantza talde hauetakoek ere parte hartuko dute: Argiak, Eibarko Kezkak, Iruñeko Dugunak, Debako Gure Kaik, Miarrizteko Maritzulik eta Bidarteko Xinkakok. Guztira, 100 dantzarik parte hartuko dute, eta ikuskizunean hamabost musikarik parte hartuko dute (www.baluarte.com).



Elgoibarko Etxegiña taldekoak eta Mendarokoak bihar irtengo dira santa eskera, eta Elgoibarko Izarrakoak, berriz, martitzenean



Otsailaren 5ean da Santa Ageda, eta, bezpera, hilaren 4a, da berez kanturako eguna, baina martitzena izanda, santa eskeko talde batzuk bihar irtengo dira kantura. Halaxe egingo dute Etxegiña taldekoek Elgoibarren, eta baita Mendaroko eskeko taldeek ere. Etxegiñaakoak 9:00etan batuko dira parrokia atzeko bolatokian, eta herriko kaleetan ibiliko dira kantuan eta eskean. Bi taldetan banatuta ibiliko dira, eta ondoren Baltasar elkartean bazkalduko dute denek elkarrekin.

Mendaron 8:30ean irtengo dira kantura, udaletxeko plazatik, eta hiru taldeetan banatuta, herriko kale eta baserri guztiak koplaturiko dituzte. Horretarako, hiru talde osatzeko, santa eskekoek dei egin diete mendaroarreni, kantura batzeko. Batzen diren guztiak aizpe gastronomia elkartean bazkalduko dute gero, eta bazkalostean, “omenaldi xumea” egingo diete urteetan santa eskean ibili diren hainbat laguni: Jabier Urbietak *Billale*, Juanito Loiola *Lasalde*, Isidro Astorkia *Olabaza*, Sabin Longarte, Manuel Loiola *Panizo*, Bitoriano Loiola *Ospas* eta Iñaki Elortza *Kortabari*.

Elgoibarko Izarrakoak, otsailaren 4an

Usadioari eutsiko diete beste behin Elgoibarko Izarra kultur elkarteak egingo dako deialdira batzen direnek. 14:30ean elkartuko dira Kalegoen palzan, eta guera arte jardungo dute kantuan, baserri-baserri.

Santa Ageda ikastetxeetan

Ikastetxeetan ere ospatuko dute Santa Ageda bezpera, otsailaren 4an. Elgoibar ikastetxeetan 15:30ean irtengo dira ikastetxetik eta Kalegoen plazaraino joango dira kantuan (euria egiten badu ikastolan ospatuko dute). Herri Eskolakoek ikastetxean bertan jardungo dute koplak kantuan. Mendaron bestalde, Ospitala, Herriko Enparantza, eta Azpilgoeta koplaturiko dituzte. Bukaeran, 12:00etan, Mendarozabalen abestuko dute denek batera, bi urtekoek ezik.

LANA

ESKAERA

- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka, Elgoibarren zein inguruko herrietan. ☎ 631 418 130
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ 632 597 073
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ 628 524 420
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko, zerbitzari edo dendarri lanetarako... ☎ 688 901 667 / 943 530 908
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketak egiteko. ☎ 699 232 823
- Emakumea lan bila. Etxeak garbitzen, adinekoak zaintzen edo zerbitzari lanetan egingo nuke lan. Orduka, interna, gauzez, egunez. ☎ 626 914 904
- Gizona eskaintzen da lanerako. Garbiketak egiten eta atezain lanetan esperientzia. Karretila altxagailurako karneta. ☎ 616 370 323
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest, interna. ☎ 699 611 871
- Emakumea lan bila: adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka edo interna. ☎ 689 571 882
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 606 354 982
- Emakume gaztea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 654 938 957
- Emakume gaztea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 632 370 798
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Pertsona arduratsua. ☎ 631 004 374
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 636 362 251

- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 669 311 385
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 632 253 170
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ 943 741 080
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ 943 043 975
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentzia onak. ☎ 943 031 329 / 645 366 354
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta etxeko lanak egiteko. ☎ 675 358 118
- Gizonezkoa lan bila. Tabernan zein jatetxean zerbitzari lanetan aritutakoa. ☎ 692 332 871
- Gizonezkoa lan bila. Pintore lanetan esperientzia. ☎ 617 694 603
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketak egiteko edo zerbitzari lanetarako. ☎ 631 549 224
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Erreferentzia onak. ☎ 691 073 462
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta gaixoak zaintzeko. ☎ 677 097 015
- Gizona eraikuntzan lan egiteko prest. Lorezaintzan, pintaketan eta biltegiko mantenu lanean esperientzia. ☎ 628 818 558
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ 680 121 252

ESKANTZA

- Neska gaztea behar da asteburuetan Elgoibarko taberna batean zerbitzari lanetan aritzeko. Itxura ona eta jendearekin tratuan lan egiteko dohaiak izatea eskatzen da. CVA bidali, argazkiarekin: kamarera@hotmail.com

ETXEBIZITZAK

- Mutil euskaldunak logela hartuko luke alokairuan, Elgoibarren. ☎ 619 678 826
- Gela bakarreko etxe polit bat alokatzen dut Elgoibarko erdigunean. ☎ 660 042 159 (Arratsaldez)

BESTELAKOAK

- Spinning egiteko bizikleta salgai. Egoera onean. Prezio oso ona. ☎ 666 110 602
- Bikote batentzako logelarako altzariak salgai. Ume gelarako moisesa, sehaska eta aldagailua ere saltzen ditut. Egoera onean. ☎ 660 606 506
- Hormako pianoa salgai. Egurrezkoa, kolore ilunakoa. Egoera onean. ☎ 645 720 601

PARTIKULARRAK

- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... klaseak emateko, DBH edota Batxilergoko mailetan. Euskaraz edo gaztelaniaz, bakarka zein taldeka. ☎ 699 495 278



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Gure komunitatean badira hainbat kuota zor dituzten etxe-jabeak. Batzuk zain egoten dira abenduko azken egunak iritsi arte, zor dituzten kuotak ordaintzeko, baina ordaintzen ez badituzte, arazoak izaten ditugu zenbait zerbitzu ordaintzeko. Neurriren bat hartu ahal izango genuke?

Legeak dio batzarra hasteko unean kuotaren bat zorretan duten etxe-jabeek eta kuoten zenbatekoarekin konforme egon ez arren, auzitara jo ez dutenek aukera dutela bileran landuko diren gaien inguruan iritzia emateko, baina ez dutela boto eskubiderik izango.

Praktikan, pertsona horiei ez zaie lagatzen botoa ematen, onartzeko gehiengo sinplea edo gehiengo kualifikatua behar duten gaietan, baina bai erabakia aho batez onartu behar den kasuetan.

Batzarrerako deialdian eta aktan jasota gelditu beharko da botoa eman ezin dutenen zerrenda.

Gomendioa: Dagozkien kuoten ordainketan atzeratzen direnei zigorren bat jartzea adostu dezake etxe-jabeen batzarrak, eta baita diru hori auzitegira jota erreklamatzeko ere.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Markel**, urtarrilaren 29an 10 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, gurasoen eta arreba Maialenen partez.



• Zorionak, **Yeray**, hilaren 30ean 8 urte bete zenituelako. Etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Julen Blanco Gantxegi**, urtarrilaren 19an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxekoekin partez.



• Zorionak, **Garazi**, igandean 3 urte egin zenituelako. Etxekoekin, eta bereziki, ahizpa Maddi eta lehengusu Beñat eta Denisen partez.



• Zorionak, **Markel**, atzo 5 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez, eta bereziki, lehengusina Nora eta lehengusu Rokeren partez.



• Zorionak, **Junel** Hasi zara oinez, eta laster zara plazan gure atzetik korrika. Horregaitik zaude poz-pozik, ezta? Muxu, zure lagun-txoon partez, bihurri!



• Zorionak, **Junel** Gure etxeko txikiak urte bat bete du gaur! Zorionak, eta muxu handi bat aita, ama eta neba Enaitzen partez. Askotxo maite zaitugu!



• Zorionak **gure katu-txoari**. Ondo pasatu zure eguna. Ama, aita eta familiako gainerakoekin partez.



• Zorionak, **Bittor**, bihar urte bat egingo duzulako. Gurasoen eta familiako gainerako guztien partez.



• Zorionak, **Julen**, atzo 11 urte egin zenituelako. Etxeko guztion partez.



• Zorionak **Lalari**, etxeko sorgiña piruliñari, hilaren 29an 2 urte egin zituelako. Muxu asko, etxekoekin partez.



• **Gari**, 5ian 5 urtetxo. Zorionak, txapeldun!



• Zorionak, **Eneko eta Ane**, igandean 3 urte bete zituzuelako. Guraso, osaba-izeba, Beñat, Maite, eta bereziki, aitiitta, amama eta Maialenen partez.




• Zorionak, **hirukote**, 3, 4 eta 6 urte bete dituzuelako. Muxu bat, familiakoekin partez.



Gaur sukaldaritza tailerrean
San Blas opilak!
Animatu eta atera ezazu barruan duzun sukaldaria!

Otsailetik aurrera
eskulan berri bat hasiko dugu. Informazio gehiago, gaztelekuan. Animatu zaitetz!





ESKERTZA

EDUARDO ETXEBARRIA URBIETA

2014ko urtarrilaren 4an hil zen, 72 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



31 barixakua

Jaia

9:00 San Juan Bosco

Elgoibarko BH Institutuan eta Mekan.

Jaia

9:00 IMH Eguna

IMHn.

1 zapatua

Santa Ageda

9:00 Santa eskea, kalez-kale

Bolatokian batuko dira Etxegiña taldekoak eta kopla kantuan jardungo dute eguerdira arte.

Santa Ageda

8:30 Santa eskea, Mendaron

Kale eta baserriak koplatuko dituzte. Herriko Enparantzan batuko dira.

2 domkea

Kandelaria eguna

8:30 Meza

Kandelaria eguneko meza berezia, Maalan.

10:00 Meza

Kandelaria eguneko meza berezia, Santa Klaran.

11:30 Meza

Kandelaria eguneko meza berezia, San Bartolome Parrokian.

3 astelehena

San Blas eguna

8:00 Meza

San Blas opilak bedeinkatzeko meza, Santa klaran.

11:00 eta 19:00 Meza

San Blas opilak bedeinkatzeko meza, San Bartolome parrokian.

4 martitzena

Santa Ageda

14:30 Santa eskea, baserrietan

Elgoibarko Izarrakoak baserri-baserri irtengo dira, kopla kantari. Kalegoen plazan batuko dira.

6 eguna

Aurkezpena

18:30 Familia ugariak

Hirukide familia ugarien elkarteak aurkezpena egingo du. Kultur Etxean.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
31 Etxeberria 1 Yudego 2 Yudego 3 Fernandez 4 Zabaleta 5 Barrenetxea 6 Ibañez	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«Lore»

31, barixakua: 22:15
1, zapatua: 19:00/22:15
2, domeka: 19:00
3, astelehena: 21:30



«La herida» (Ongarri zinekluba)

6, eguna: 21:30



«Futbolín»

2, domeka: 16:30





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongl

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrot

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morcaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



ZATOZ IKASTOLARA

Aurkezpen
bilera irekia
otsailaren
3an
19:00
IKASTOLAN



ikastolenelkartea

www.elgoibarikastola.net 943 744441 elgoibar@ikastola.net

aurre-matrikulazioa
otsailaren 3tik 14ra